

'Telma' tifoia bi mila lagun hil ditu Filipinetatik igarotzean

Kopuru horrek gora egingo du kaltetutako lurraldeekin komunikazioak konpontzerakoan

2.000 lagun inguruk galdu zuten bizia atzo, Filipina irletan 'Telma' tifoia sortutako uholde eta errekaen ondorioz. Aurten hamazazpi tifo igaro diren artxipelago horretatik, azkenengoak izan du indarririk handiena. Pinatubo sumendiak eragindako kalteetatik berrindartzen hasiak zirenean gertatu da naturak eragindako beste suntsipena.

MANILA

Hondamenaren lehendabiziko informazioek zioten Ormoc hirian, Manilatik 570 kilometro hegoekialdera, izan dela eskualderik kaltetue- na, han bertan, gutxienez 2.000 pertsona hil bait dira. Hiri horretako Defentsa Zibileko bozeramaleak adierazi zuen «ehundaka gorpu hilak urgainean daudela hiri osoan» eta gaineratu zuen ehundaka desagertu ere badaudela hiri horretan.

Angel Gaviolak, Cebu hiriko Gobernuko erakunde horretako buruzagiak, argitu zuen, azken informeen arabera, «egoera katastrofikoa dela» Ormoc hirian. Ur korronteen indarrak etxe asko eramandu du berarekin eta elektraiak eta telefono hariak txiki txiki eginda geratu dira.

Dagoeneko seirehun hildakoz bete dira hiri kaltetueneko ospitaleak, oraindik ehundaka gorpu urgainean geratu direlarik. Maria Victoria Locsin, Ormoceko alkatesak Cebuko gobernadoreari irratiz mezu bat bidali zion, orain arte 2.009 hildako zeudela hiri horretan, eta soilik lehendabiziko datuak zirela esanez. Hiriko zenbait gunetan ura hiru metro altuerara iritsi zen. «Iristen ari zaizkigun berriek isolatu eta birrin-



'Telma' tifoia eragindako uholdeek etxeak suntsitu zituen. ROMEO RANJOCO

duta geratu den hiri baten deskribapena ematen digute» adierazi zuen Winston Garcia-k, Defentsa Zibileko kide batek. Funtzionari filipinarrek gaineratu zuen, Ormoceko alkatesak laguntza eskaria egin duela,

batez ere, janaria, medizina, arropak eta erregaia eskatuz.


Ormoc hiriaz gain, beste irla batzuetan ere kaltetu ugari egon ziren atzoko 'Telma' tifoia eramandako uholdeen eraginez. Behin-behineko

Pinatubo eta 'Telma'

Filipina irletan ez dira atsekabeak amaitu. Joan den udan Pinatubo sumendiak ehundaka lagun heriotza eragin zuen. Sumendiaren indarrak eta uholdeak garraiatu zituen errautsek hildakoak, desagertuak eta hainbat lagunek alde egin beharra eragin zituen. Hondamenak berak 800 lagun hil zituen, eta ondoren errefuxiatu eremuetan, izurriteek eta osasun baldintza eskasek, (ur edangarriaren eskasia, sendagileen falta) lauhun haurren heriotza eragin zuten.

Imelda Marcosen itzulerak, irla horietatik etortzen diren berrien aldaketa eragin zuen. Egunero Filipinetatik hildakoen berriak jasotzen ditugu EGUNKARIAKO erredakzioan, eta Ferdinand Marcosen alargunaren itzulerak beste mota bateko berriak emateko aukera eskaini du.

Baina Imelda Marcosek berak ere ezin izan du 'Telma' tifoia gerarazi. Bi mila lagunetik gora hil dira oraingoan, joan den asteko 'Ruth' tifoia beste berrogeitamar lagun heriotza ekarri zuen, eta horietaz gain beste hamabost tifo egon dira aurten irla horietan.



LMARTIARINA

datuen arabera, gutxienez 30 lagun hil dira Negros irlan. Leyte irlan ere tifoia utzi zituen bere ondorioak. Imelda Marcosen jaioterrian uholdeak ere izan ziren. Marcosen generaren emaztea atzo zen joatekoa Leytera, baina bere bidaiatzeratu zuen eskualde horretan eguraldia txarra zela eta.

'Telma' tifoia atzo baretu egin zen, eta Filipinetako hegoaldera abiatu da indar gutxiagorekin. Lurralde kaltetuekin komunikazioak konpontzen direnean hildako eta desagertutako jende gehiago egongo dela ziurtatu dute agintari filipinarrek. Bitartean, milaka pertsona ateratu dituzte kaltetutako lurraldeetatik toki seguruagoetara.

Miyazamak bere Gobernuaren egitasmoak aurkeztu zituen

DONOSTIA

Kiichi Miyazama Japoniako lehen ministro berriak Estatu Batuekin eta Europako Komunitatearekin «maila berean» negoziatzeko asmoa duela azaldu zuen. Miyazamak atzo eskaini zuen bere lehen prentsaurrekoa Japoniako gobernuburu izendatu du tenetik. Miyazama Noboru Takeshitaren Goiberruan Finantza ministroa zen iskanbila batean nahastuta zegoela frogatu eta dimititu beharra izan zuen arte.

Japonia eta EEBBtako harreman komertzialetan hitzegiterakoan, estatubatuarren defizitak bi nazioen arteko salerosketen desoreka sortu duela adierazi zuen Miyazamak. Japoniaren produkzioaren gorakadak estatubatuarren kezka bizia sortu du, gaur egun Japoniak EEBBtan askoz gehiago saltzen bait du, estatubatuarrek Japonian baino. Sovietarrekin edukiko dituzten harremanez ere hitzei zuten lehen ministro berriak. Kuril irlak bi nazioen arteko harremanak baldintzatuko dituztela garbi utzi zuen Miyazamak.

LABURREAN

KAMPUCHEAN 483

preso politiko askatu dituzte

Kampucheko Gobernuak 483 preso politiko eta gerra zibileko borroketan preso egindako beste 500 lagun aske utzi zituen urrian. Libre utzi zituzten artean, urtearen hasieran oposizioko talde politikoa osatzeagatik gartzelan sartutako pertsona taldea zegoen. Urriaren 17a arte Kampuchean erregimen komunista bat zegoen boterean. Gaur egun bakea lortzeko zenbait akordio sinatu dira eta Alderdi komunistak jadanik ez du boterea berak bakarrik kontrolatzeko asmorik.

EEBBtan eutanasia atzera bota dute

Estatu Batuetan, Washington estatuko botoematek atzera bota dute eutanasiaren lege proiektua. Eutanasiaren kontra botoemateen % 55 azaldu ziren eta alde % 45. Hau da lehen aldian eutanasiaren lege proiektua erreferendumerak eramaten dena. Munduan ez dago nazio bat ere bere legegian eutanasia egiteko legerik duenik. Estatu Batuetako sendagileen elkarteek kanpaina gogorra egin dute eutanasiaren kontra, «legezko hilketa» dela esanez.

GATES CIAko zuzendari izendatu dute

Robert Gates da CIAko, Estatu Batuetako Informazio Zerbitzuetako zuzendari berria. George Bush lehenkari estatubatuarrek duela sei hilabete Gates CIAko zuzendari izendatzea erabaki zuen. Geratzen zen azken pausua Senatuaren onarpena zen eta Gates 'Irangate' iskanbilan nahasturik egon zela esan bada ere, senadoreen gehiengoak bere izendapena onartu du. Izendapenaren alde 64 senadore agertu ziren eta kontra 31.

EEBBek 800 milioi dolar ateratu dituzte gerrarekin


Estatu Batuek 800 milioi dolar ateratu dituzte Golkoko Gerran aliatuek agindutako diru kopuruak jasotzen badituzte. Estatu Batuek 47.500 milioi dolar gastatu zituzten Golkoko Gerran egindako ekintza militar guztiak prestatzen. Aliatuek, berriz, 48.300 milioi dolar ordainduko dizkietela agindu zieten. Arabia Saudik oraindik 2.400 milioi dolar zor dizkie estatubatuarrei eta Kuwaitek beste 2.000 milioi dolar.

Maxwellen heriotzaren inguruan ez du inork argibiderik aurkitzen

DONOSTIA

Robert Maxwell prentsa enpresariaren gorpua Gran Canaria irlatik 50 kilometrotara itsas barrenean aurkitu zuen Erreskate Zerbitzuko hegazkin batek. Maxwellen heriotzaren inguruan misterioa nagusitu da eta inork ezin izan du argibiderik aurkitu.

'Lady Ghislaine' yateak, adituek diotenez, metro t'erdiko barandak ditu eta nahiz eta Maxwell gizon garaia izan, mozkorturik egonik ere, oso zaila zen itasora erortzea. Suizidioaren tesiak ere ez dute zentzu handirik bere inguruko pertsonak adierazi dutenez. Adiskideen esanetan, Maxwellek ez zuen inoiz amore ematen eta hestutasunetik



Daily Mirror

irteteko gizon trebea zen. Maxwell judu txekoslovakiarra zen eta nazien garaian gorriak ikusi zituen soldadu alemaniarren eskuetatik ihes egiteko.

Maxwellen enpresak zor handiak dituzte eta Erresuma Batuan zurrumurru ugari entzun daitezke. Zurrumuruak aieratzen gehien aritu dena 'The Sun' egunkari sentsazionalista izan da. Dena den, inork ezin izan du misterioa argitu. Yateko kapitaina ordu batzuk pasa eta gero ohartu zen Maxwellen desagertzea. Enpresariak zenbait telefono dei erantzun gabe utzi zituen eta kapitainak Erreskate Zerbitzuei laguntza eskatu aurretik bizpahiru aldiz yate arakatu zuen Maxwellen bila.